

## NIRE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI AURKARATZE- ESKUBIDEA BALIATZEKO FORMULARIOA

Tratamendu-jardueraren eta bere arduradunaren datuak, zeinaren aurrean eskubidea baliatzen den

Tratamendu-jarduera					
Tratamenduaren arduraduna		Gipuzkoako Batzar Nagusiak			
Kalea	Miramón Pasalekua	Zkia.		164	
Herria	Donostia – San Sebastián	Lur. historikoa	Gipuzkoa	PK	20014

Tratamendu-jarduera zehatzaren izenik adierazten ez bada, ulertuko da eskubidea tratamendu guztietarako baliatzen dela.

**Adin naguskoa den eskatzailearen datuak**

1. deitura			2. deitura			
Izena			NAN*			
Kalea			Zkia.		Solairua	
Herria			Probintzia			PK
Telefonoa			Posta elektronikoa			

**Ordezkeri legalaren datuak (desgaituta dauden eta adingabeak direnen kasuan)**

1. deitura			2. deitura			
Izena			NAN*			

Aurkaratzeko dudan eskubidea baliatu nahi dut, jarraian adierazitakoaren eta datuen babesari buruzko araudian ezarritakoaren arabera.

**Nire argudioak:**

– Behar ez bezala tratatzen ari diren datu pertsonalen deskribapena.

– Zergatik den tratamendua behar ez bezalakoa (zerrendatu aurkaratzearen arrazoiak).

– Nire argudioen lagungarri gisa eranstean dudak dokumentazioa.

**Eskatzen dut aintzat hartu dadila nire aurkaratze-eskubidea, arestian adierazitako moduan.**

Lekua eta data	Sinadura

(\*) NAN, IFZ, pasaporte edo baliokidearen zenbakia duten pertsonen kasuan, bai eta dagokion dokumentuaren fotokopia.

### ARGIBIDEAK

Zure datu pertsonalen tratamenduaren aurkaratzea Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrean egiten da, tratamenduaren arduradun gisa.

#### **Formularioa betetzeko jarraibideak eta idazkiarekin batera eman beharreko dokumentazioa**

- Beharrezkoak dira izena, abizenak eta NANaren fotokopia edo zuzenbidean balioduna den identifikazio pertsonaleko beste edozein bitarteko.
- Interesduna desgaituta badago edo adingabea bada, beharrezkoak dira, halaber, ordezkari legalaren lehen aipaturiko datuak. Gainera, kasu horretan ordezkari legala egiaztatzen duen benetako dokumentu bat ere aurkeztu behar da.
- Era berean, helbidea edo posta elektronikoa beharrezkoa da jakinarazpenetarako, data eta interesdunaren sinadurarekin

#### **Prozeduraren eskakizunak tratamenduaren arduradunarentzat**

- Aurka egiteko eskubidea interesdunak bakarrik egikaritu dezake. Beraz, ez da bitarteko baliagarria hirugarren pertsonen datu pertsonalen tratamenduari aurka egiteko.
- Arduradunak eskatzaileari gehienez hilabeteko epean erantzun beharko dio, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- Aurkaratze-eskubidearen eskaera onetsiko balitz, arduradunak egin izan duen tratamendutik eskubide hau baliatzen duen interesdunaren datuak kendu egin beharko ditu, edo eskaera arrazoibidez ukatu beharko du.
- Datuen tratamendutik salbuestea doakoa da.

#### **Aurkaratzea ukatzeko kasu zehatzak**

- Tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak tratatzeari utziko dio, salbu eta interesdunaren interes, eskubide eta askatasunei gailentzen zaien ezinbesteko arrazoi zilegiak egiaztatzen baditu tratamendurako, edo erreklamazioak egiteko, baliatzeko edo aldezteko.

#### **Aplikazio-araudia**

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Direktiba (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, 21. artikulua.

#### **Erreklamazioak (eskubideen zaintza)**

- Eskatzaileak uste badu ez zaiola behar bezala erraztu bere datuak aurkaratzeko eskubidea, erreklamazioa aurkeztu dezake Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan, bere eskubideak zaintzeko prozedura bat hasi dezan.
- Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarekin harremanetan jartzeko bere webgunearen bidez egin daiteke: [www.avpd.eus](http://www.avpd.eus).